

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

5567

EBAZPENA, 2025eko abenduaren 23koa, Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren zuzendariarena, Aralar eremuko Baliabide Naturalak Antolatzeke Plana onartzen duen Dekretua eta Aralar Aldea parke naturalizat jotzen duen Dekretua aldatzen duen eta Parke Naturalaren lurralde-mugaketaren zabalkuntza onartzen duen Dekretua jendaurrean jartzen dituen.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren 2025eko abenduaren 12ko Aginduaren bidez, erabaki zen hasiera ematea Aralarko Baliabide Naturalak Antolatzeke Plana onartzen duen prozedurari.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren 2025eko abenduaren 22ko Aginduaren bidez, alde zuzenetik onartu da Aralarko Baliabide Naturalak Antolatzeke Plana onartzen duen dekretu-proiektua.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren 2025eko abenduaren 22ko Aginduaren bidez, erabaki zen hasiera ematea Aralar Aldea parke naturalizat jotzen duen Dekretua aldatzeko eta Parke Naturalaren lurralde-mugaketa zabaltzeko prozedurari.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren 2025eko abenduaren 23ko Aginduaren bidez, alde zuzenetik onartu da Aralar Aldea parke naturalizat jotzen duen Dekretua aldatzeko eta Parke Naturalaren lurralde-mugaketa zabaltzeko dekretu-proiektua.

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedura arautzen duen ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17. artikuluan ezarritakoa betez, jendaurrean jartzeko eta administrazio publikoei eta gizarte-sektore interesdunei entzuteko epea ireki behar da, hilabete bateko epean, ebaizpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Horregatik guztiagatik, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Aralarko Baliabide Naturalak Antolatzeke Plana onartzen duen Dekretua eta Aralar Aldea parke naturalizat jotzen duen Dekretua aldatzen duen eta Parke Naturalaren lurralde-mugaketaren zabalkuntza onartzen duen Dekretua jendaurrean jartzea, hilabete bateko epean, iragarki hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe horretan, interesdunek egoki irizitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Bigarrena.— Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioz, dokumentazioa aztergai egongo da epe horretan, bai egoitza elektronikoan (https://www.euskadi.eus/web01-tramite/es/contenidos/anuncio_tablon/con_2005832/es_def/index.shtml), bai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saileko Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritzan, jendaurreko ordutegian:

Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritza.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saila.

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 23a.

Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren zuzendaria,
ADOLFO URIARTE VILLALBA.